



---

## FORU DEKRETUA

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila  
Zerga Araudiaren Zerbitzua  
Esp. zk.: 59/2019

**Aldatzea urtarrilaren 25eko 3/2011 Foru Dekretua, zeinaren bidez arautzen baitira zergadunen errolda eta haren inguruko betebeharrak, eta aldatzea, halaber, abenduaren 23ko 111/2008 Foru Dekretua, zeinaren bidez arautzen baita kontuen, eragiketen eta finantza aktiboen zein atzerrian dauden ondasun eta eskubideen berri emateko betebeharra.**

Foru dekretu honen helburua da aldatzea urtarrilaren 25eko 3/2011 Foru Dekretuak onetsitako araudia, zeinaren bidez arautzen baitira zergadunen errolda eta haren inguruko betebeharrak, eta aldatzea, halaber, abenduaren 23ko 111/2008 Foru Dekretuak onetsitako araudia, zeinaren bidez arautzen baita kontuen, eragiketen eta finantza aktiboen zein atzerrian dauden ondasun eta eskubideen berri emateko betebeharra.

Zergadunen errolda eta haren inguruko betebeharren araudiari dagokionez, beharrezkoa da subjektu pasibo jakinek dituzten aukera berriak arautzea, haiek amaierako kontsumitzaileei ematen dizkieten telekomunikazio, irrati edo telebista difusio zerbitzuek eta bitarteko elektronikoen bidez emandakoek zerbitzua kontsumitzen den estatu kidean ordain ditzaten beti zergak, nahiz eta zerbitzuak ematen dituen pertsonak edo erakundeak erkidegoan urteko 10.000 euroak ez gaudituz urte naturalean, zerbitzu horien BEZaren ordainketari buruzko arau berriein bat etorritz, eta baldin eta hartzailea ez bada enpresaria edo profesionala edo eragiketa horretan ez bada enpresari edo profesional gisa jarduten.

Bestalde, harpidetza eskubideak besterentzeko eragiketei buruz zerga administrazioari informazioa bi aldiz ematearen ondorioz kudeaketa arazorik ez izateko, aldaketa egiten da kontuen, eragiketen eta finantza aktiboen zein atzerrian dauden ondasun eta eskubideen berri emateko betebeharraren araudiaren 7. artikuluan, eta era horretan, erakunde gordailuzainean harpidetza eskubideak dituzten eragiketei buruzko informazioa zentralizatzen da, eta, ondorioz, Espainian erakunde gordailuzainik ez bada soilik eman beharko du informazioa finantza bitartekariak edota eragiketan parte hartu duen fede emaile publikoak.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak eta Aholku Batzordeak horri buruz emandako txostenak aztertu dira.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Foru Gobernuaren Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau



## XEDATZEN DUT

### **Lehena. 3/2011 Foru Dekretua, urtarrilaren 25ekoa, zeinaren bidez arautzen baita zergadunen errolda eta haren inguruko betebeharrak.**

Honako aldaketa hauek egiten dira zergadunen errolda eta haren inguruko betebeharrak arautzen dituen urtarrilaren 25eko 3/2011 Foru Dekretuan:

**Bat.** 12. artikulua 3. apartatuari x) eta y) letrak gehitzen zaizkio; hona hemen haien edukia:

“x) Balio erantsiaren gaineko zergari buruzko arauaren 70.1.8 artikuluan aipatzen diren zerbitzuak kargapean ez egotea aukeratu.

y) Balio erantsiaren gaineko zergari buruzko arauaren 70.1.4.a) artikuluan aipatzen diren zerbitzuak kargapean daudela jakinarazi, baldin eta pertsona edo erakunde aitortzailea ez badago jadanik erroldan erregistraturik”.

**Bi.** 13. artikuluko 2. apartatuaren g) letra aldatzen da eta t) gehitzen zaio; hona hemen nola geratuko diren idatzita:

“g) Aukerak ezeztatu edo eskabideak aldatu, apartatu honetako c), d), e), q), r) eta t) letrak eta Foru Dekretu honetako 12. artikuluko 3. apartatuko f), h), s), t) eta x) letrak aipatutakoak, baita apartatu honetako f) letrak eta foru dekretuko 12. artikuluko 3. apartatuko i), u) eta y) letrak aipatutako egoera aldaketak jakinarazi ere.

t) Balio erantsiaren gaineko zergari buruzko arauaren 70.1.8 artikuluan aipatzen diren zerbitzuak kargapean ez egotea aukeratu”.

### **Bigarrena. 111/2008 Foru Dekretua, abenduaren 23koa, zeinaren bidez arautzen baita kontuen, eragiketen eta finantza aktiboen berri emateko betebeharrak.**

7. artikulua 2. apartatuari hirugarren paragrafo bat gehitu zaio; hona hemen haren edukia:

“Harpidetza eskubideekin lotutako eragiketei dagokienez, balio horien Espainiako erakunde gordailuzainari dagokio aitorpena egitea, eta horrelakorik ez badago, finantza bitartekariak edota eragiketan parte hartu duen fede emaile publikoak egingo du”.



## **AZKEN XEDAPENA**

Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak.

Gasteiz.

### **Ramiro González Vicente**

Diputatu nagusia  
Diputado General

### **José Luis Cimiano Ruiz**

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu  
Saileko foru diputatua  
Diputado Foral de Hacienda, Finanzas y  
Presupuestos

### **Teresa Viguri Martínez**

Ogasun zuzendaria  
Directora de Hacienda